Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregorio Telleria Pagoaga

Beasain, Gipuzkoa (1929-2017)



Aurkibidea

Biografia



Legazpin jaioa; aita bertakoa zuen eta ama mutrikuarra. Gerra ostean heldu zen Abarizketa baserrira, 1940an, 11 urte zituela. Elkarrizketan bere emaztea ere azaltzen da, Mari Cruz Gaintza (1934), Azkaratekoa (Nafarroa).

Zintak

BEA-021

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2005-10-06
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hamaika urterekin Abarizketa baserrira

- **Erref**: BEA-021/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitak meategian lan egiten zuen eta lana non hara joan behar izaten zuten. Legazpin jaio zen Gregorio, baina urtebete zuela Alegiara joan ziren. Gero, 11 urte zituela, Beasaingo Abarizketa baserria erosi zuen aitak. Ganadua hartuta, bera bakarrik joan zen Gregorio Abarizketara, aita lanean zegoen eta. Bertako familiarekin bizi izan zen sei hilabetez, haiek baserria saldu ostean ez baitzuten nora joanik.

2. Beasainmendi eta Beasaingo beste auzo batzuk

- **Erref**: BEA-021/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Beasainmendi auzo handia da. Beasaingo beste auzo batzuk. Beasainen muga Mandubi inguruan.

3. Beasainmendi auzokoak elizara eta eskolara kalera

- **Erref**: BEA-021/005
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:06:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Beasainmendi auzoak ez du ermitarik eta auzokoak kalera joaten ziren mezara. Inguruan badago San Martin ermita, baina hori ere kaletik gertu. Eskolarik ere ez zuten auzoan eta kalera joan behar izaten zuten. Berak eskola gutxi ikasi omen zuen.

4. Abarizketa ingurua nola aldatu den

- **Erref**: BEA-021/006
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:06:23. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Ingurua zenbat aldatu den bera Abarizketara etorri zenetik. Lehen inguruak garbi-garbi zeuden, belazez eta soroz beteta. Orain pinu asko dago. Lehen basoetan haritza eta pagoa ziren nagusi. Garia eta artoa hartzen ziren gehien inguruetan.

5. Garia, azaroan erein eta uztailean ebaki

- **Erref**: BEA-021/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia azaro erditik atzera ereiten zen. Horretarako lurra goldatu egiten zen, aurretik artoa eta babarruna egondako lekuan ereiten zelako. Erein eta gero area pasatzen zen, eta karea ere botatzen zitzaion lurrari. Uztail bukaeran ebakitzen zen garia. Hasieran igitaiarekin ebakitzen zuten eta, jende asko behar izaten zenez, auzolanean egiten zen. Ebaki eta "balak" egiten zituzten.

6. Garia, metetan lehortu eta losa gainean eskuz jo

- **Erref**: BEA-021/008
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia ebakitakoan, lehenbizi meta txikiak egiten zituzten eta haiek sikatzen zirenean meta handiagoa. Gero garia eskuz jotzen zuten etxe atarian, harri-losa batzuen kontra joz. Babak aletzeko edo ondo jo gabe geratzen ziren buruak jotzeko "idaurra" erabiltzen zuten, bi makila elkarri lotuta. Gariak ematen zuen lanik handiena

7. Garia garbitzeko haizezko makina

- **Erref**: BEA-021/009
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia jo eta gero garbitu egiten zen. Haizea botatzen zuen eskuzko makina bat zuten eta oso ona omen zen.

8. Garia kutxetan gorde; neurriak

- **Erref**: BEA-021/010
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:15:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia egurrezko kutxetan gordetzen zen. Neurtzeko ontziak egoten ziren gero: anega erdikoa, iminia, lakaria...

9. Gerraostean garia eta babarruna entregatu egin behar

- **Erref**: BEA-021/011
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:15:24. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Lehen eguneroko jatekoak artoa (taloak), garia (ogia), babarruna eta txerrikia izaten ziren. Gregorio soldadutzan egon zen denboran errazionamendua eta ogi eskasia egon zen. Etxean jasotzen zen gariaren eta babarrunaren hainbesteko bat entregatu egin behar izaten zen.

10. Auzolanaren ostean afaria

- **Erref**: BEA-021/012
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:19:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Auzolanean egiten ziren lan asko. Lanak bukatutakoan afaria edo merienda: baratxuri-zopa, gazta eta txerrikia edo. Eta ardoa. Sagardoa etxean egiten zuten, baina halako afarietan ardoa zen ohikoagoa. Abarizketan taberna ere izan zuten.

11. Sagardoa egiten zuten Abarizketan bertan

- **Erref**: BEA-021/014

- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:19:45. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Sagardoa egiten zuten etxean. Lehenbizi sagarra jotzen zuten makina batekin eta gero dolarera bota. Estutu egin behar izaten zen bi-hiru aldiz. Gero barrikara. Gerora, harriak sagarra hondatu omen zuen eta sagardoa egiteari utzi zioten.

12. Gaztetatik basoan, egurra ateratzen eta zuhaitzak botatzen

- **Erref**: BEA-021/016
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:21:17. **Bukatu**: 00:23:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Hamabost urte ingururekin basoan hasi zen lanean. Etxean ere lan asko izaten zen, eta tarteka joaten zen. Idiekin egurra garraiatzea izaten zen bere lana. Pagoa eta haritza ateratzen zen gehienbat. Pinua ere atera izan zuen, inguruetako lehenbizikoak. Botatzen ere ibiltzen zen; orduan trontzarekin botatzen ziren bi lagunen artean. Inguruetan ibili omen zen bakarrik lan egiten zuen bat ere.

13. Aitarekin ikatza egiten ibilitakoa

- **Erref**: BEA-021/017
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:23:38. **Bukatu**: 00:26:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:
Ikatza egiten ere ibili zen azken urteetan aitarekin. Lehenbizi egurra prestatu: erdian zuloa utzita, bueltan-bueltan jarri egurrak. Gero lurra botatzen zaio gainetik eta erdiko zulotik su eman. Azkenik, hura ere tapatu. Kea bakarrik atera behar da. Txondorra egosi egin behar izaten zen, ez erre eta, horretarako, gau eta egun zaindu behar izaten zen, zulo txikiren bat eginez gero, hura azkar estaltzeko. Inguruetan ikazkin nafarrak ibili ziren eta haiek txondor ondoan txabola egiten zuten bertan lo egiteko. "Txondar-zulo" ugari ziren inguruetan; baita karobiak ere. Berak ez du ezagutu karea egiten.

14. Artoa, esnearekin edo taloak eginda

- **Erref**: BEA-021/019
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:26:53. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoarekin taloak egiten zituzten. Eibar edo Mutriku inguruan morokila ere egiten zen, baina Beasainen ez zegoen ohitura hori. Beraiek jaten zuten, Gregorioren ama mutrikuarra zelako. Bestela, arto-opila ere jaten zuten, batez ere esnearekin. Gosaltzeko, normalean, taloak. Eta gero bederatziak aldera, baratxuri-zopa.

15. Babarruna egunero; haragia, berriz, gutxitan

- **Erref**: BEA-021/021
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:29:07. **Bukatu**: 00:30:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Bazkaltzeko egunero babarruna jaten zuten. Oilaskoa jai handietarako. Arroz-esnea. Haragi gutxi jaten zen. Ardiak zituztenek ardikia jaten zuten. Zezina eginda, gatzatuta, kontserbatzen zen.

16. Lehen beste bero klase bat egiten zuen

- **Erref**: BEA-021/023
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:30:54. **Bukatu**: 00:32:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Gose urteetan ganaduari lizar hostoak ematen zitzaizkiola gogoan du Mari Kruzek, Gregorioren emazteak. Gregorio soldaduskara joan baino lehentxeago bi urtean lehorte handia egon omen zen. Lehen beste bero klase bat egiten omen zuen, ez oraingoa bezalakoa.

17. Garai batean elurte handiagoak

- **Erref**: BEA-021/024
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:32:53. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Lehen orain baino elurte handiagoak egiten zituen. Elur handia egin zueneko kontuak. Egun askoan egoten zen elurra, gainera, kendu gabe. Izotz-kandelak.

18. Gaztaina klaseak

- **Erref**: BEA-021/026
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:34:50. **Bukatu**: 00:36:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Lehenago gaztaina asko izaten zen inguruetan. Gaztaina klaseak: goiz-gaztaina, San Agustin gaztaina, "iñurrioa"... Bakoitza nolakoa izaten zen. Gaztaina-erreak eta sagardoa. Ezkurra ere asko biltzen zen txerrientzat.

19. Lehengo sukaldeak

- **Erref**: BEA-021/027
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:36:27. **Bukatu**: 00:37:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Lehen beheko-sua zuten etxean. Gregoriok entzunda du garai batean sukalde batzuetan erdi-erdian izaten zutela sua, baina beraiek ez dute halakorik ezagutu.

20. Igandetako erromeriak; udaran Murumendira

- **Erref**: BEA-021/029
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:40:02. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Igandetan festara joaten ziren. Murumendin bilera handia egiten omen zen. Bestela, baserri batean edo bestean, beti egoten zen soinujoleren bat. Bazkalostean goiz irteten ziren, iluntzean goiz itzultzeko. San Pedro egunean Larraitzen egiten zena izaten zen inguruetako erromeria handienetakoa. Beste auzo batzuetan ere egiten ziren.

21. Dantza lotua bekatu; apaizari emandako erantzuna

- **Erref**: BEA-021/030
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:41:58. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Erromerietan dantza soltea bakarrik egiten zuten; dantza lotua debekatuta zegoen, bekatua omen zelako. Behin Gregoriok apaizari eman zion erantzuna. Elizak indar handia zuen. Erromerietan ezkututik begira egoten ziren.

22. Joaten ziren lekuan erromeria jartzen zuten

- **Erref**: BEA-021/031
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:44:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Auzoko 14-15 lagun ibiltzen ziren elkarrekin eta joaten ziren lekuan erromeria jartzen zuten, soinujolea ere beraiekin eramaten zuten eta. Gero kuadrilla desegin egin zen.

23. Pilotarako zaletasuna, baina auzoan frontoirik ez

- **Erref**: BEA-021/032
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:44:32. **Bukatu**: 00:45:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Futbolean ibiltzen ziren auzoko mutil koskorrak. Kaniketan ere bai; nola zen jolasa. Gregoriok pilotarako zaletasuna zuen, baina ez zuten frontoirik auzoan. Bolatokia ba omen zen, baina erre egin zen eta beraiek ez zuten ezagutu.

24. Marigorringoari: "bihar eguzki ala euri?"

- **Erref**: BEA-021/034
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:56:58. **Bukatu**: 00:57:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Marigorringoari "bihar eguzki ala euri?" galdetzen zitzaion, eskuan jarrita.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com